



IES Uribe-Kosta BHI

MUSIKA

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa *Programación didáctica anual/de curso 2016-17*

Ikastetxea: <i>Centro:</i>	URIBE KOSTA BHI	Kodea: <i>Código:</i>	015143
Etapia: <i>Etapia:</i>	DBH	Zikloa/maila: <i>Ciclo/Nivel:</i>	1.maila
Arloa/Irakasgaia: <i>Área / Materia:</i>	Musika		
Osatutako Arloak/Irakasgaiak <i>Materias integradas/ Áreas</i>	TIC, EUSKERA, LENGUA, INGELESA, GORPUTZ HEZKUNTZA		
Diziplina barruko Oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>Competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia Matematikarako kompetentzia Zientziarako kompetentzia Teknologiarako kompetentzia Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia Arterako kompetentzia Kompetentzia motorra		
Irakasleak: <i>Profesorado:</i>	Almudena Martínez	Ikasturtea: <i>Curso:</i>	2017/2016

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia**
2. **Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia**
3. **Elkarbizitzarako kompetentzia**
4. **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia**
5. **Norbera Izaten ikasteko kompetentzia**

Helburuak <i>Objetivos</i>	Ebaluazio-irizpideak <i>Criterios de evaluación</i>
Honako hauek dira Musika ikasgaiko etapako helburuak:	1. Musika-lan edo -pasarte laburrak entzun eta musikaren oinarrizko elementuak identifikatzeko gai izatea, eta musika

<p>1. Musikak norberaren ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko dituen aukera ugarietz jabetzea, eta hainbat motatako musika-adierazpenak errespetatzea eta balioestea, artea eta kultura ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen duten aldetik.</p> <p>2. Musikaren eta beste arte-hizkuntza, ezaguera, ikus-entzunezko baliabide eta hedabide batzuen arteko loturak zein diren jakitea, eta horiek guztiak artelan konplexuak ekoizteko beharrezkoak diren sormen-, espresio- eta komunikazio-bidetzat erabiltzea.</p> <p>3. Estilo, genero eta hainbat joeratako musika-lanetan erabiltzen diren elementu tekniko eta espresiboak aztertzea eta identifikatzea, eta hori guztia ezaguera-bide eta gozamen-iturritzat hartzea, musika ondo ulertzeko, erreferente estetiko berriakeskuratzeko eta mota askotako errealitate eta ekoizpen artistikoen bidez nor bere burua aberasteko.</p> <p>4. Musikaren oinarriko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea, musika-lanak autonomiaz eta trebetasunez aztertzea, interpretatzea eta ekoiztea, eta horretan, norberaren trebetasun intelektualez, ekimenaz eta irudimenaz baliatzea, sormen eta espresio-bide indibidual nahiz kolektiboak lantzeko eta aberasteko.</p> <p>5. Norberak zenbait musika-lan sortzea, horretan emandako denboran gozatzea eta musika pertsona gisa hazteko, emozio, sentimendu, bizipen eta ideien berri emateko eta komunikazio-gaitasuna, pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza garatzeko bidetzat hartzea.</p>	<p>pertsona gisa hazteko eta gozatzeko bidetzat hartzea.</p> <p>Soinu-parametroen diferentziak eta kontrasteak bereizten ditu proposatzen zaizkion entzunaldietan.</p> <p>Partiturak eta beste baliabide grafiko batzuk erabiltzen ditu entzute-jardunari laguntzeko.</p> <p>Teknologia berriak erabiltzen ditu entzuteko proposatu diren obren zenbait alderdi ikertzeko.</p> <p>Arretaz eta modu kontzientean entzuten ditu musika-adibideak. Musika entzutea balioesten du, jakintzarako eta gozamenerako iturria den aldetik.</p> <p>2. Musika sortu eta interpretatzeko erabiltzea arte-hizkuntzek eta teknologia berriek ematen dituzten aukera eta baliabideak.</p> <p>Soinu-efektuak sortzen ditu eta bere musika-ekoizpenetan erabiltzen.</p> <p>Interpretazio-teknika askotarikoak probatzen ditu.</p> <p>3. Musikan erabili ohi diren teknika eta baliabide ugariak identifikatzeko gai izatea, eta komunikazio-bide eta espresio-bide artistikotzat hartzea teknika eta baliabideok.</p> <p>Musika-jardueretik interesa ageri du eta gozatu egiten du jarduera horiekin.</p> <p>Hitzez eta adierazten ditu musika-lanek sorrarazten dizkieten emozioak eta sentimenduak.</p>
--	--

6. Zenbait testuingurutan egitekoak diren musika-proiektu musikaletan parte hartzea, eta talde barruan zenbait funtzio betetzea, horrela plangintzak egitearekin, koordinazioarekin eta talde-lana ebaluatzearekin lotutako trebetasunak lantzeko.

7. Musikaren eta soinuaren erabilerak eta funtzioak kritikoki aztertzea, eta horiek norberaren nahiz besteen esperientzietan identifikatzea, musikak gure inguruko gizartean eta kulturaren zer-nolako funtzioa duen ulertzeko.

8. Musika herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarrizketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoei egindako ekarpen ugarietako interesa izatea.

Musika balioesten du, ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko modua den aldetik.

4. Musika-lanak aztertzeke eta interpretatzeko erabiltzeke musika-hizkuntzaz eta -baliabideez ikasitakoa, eta horretan, zenbait egoeratan sortutako arazoei sormenez erantzuteko gai izatea.

Hizkuntza musikalaren oinarriko ezaugarriak ezagutzen ditu eta badaki nola erabili kantatzeko eta musika-tresnak jotzeko.

Egoki erabiltzen du musika-kodea.

Behar bezala antolatzen ditu musika-laneko urratsak.

Autonomiaz jokatzen du musika-hizkuntzako baliabideak erabiltzean.

Musika-lanak egitean, soinuak ikertzen ditu ahotsarekin eta musika-tresnekin.

5. Bere kabuz musika-lan propioak sortzea.

Lanak azaltzean, helburuaren arabera antolatzen du azalpena.

Bere lan artistikoak aztertzen ditu eta haien hobetzen saiatzen da.

Hazkunde pertsonalerako tresna moduan erabiltzen du adierazpen artistikoa.

Adierazkortasuna erantzen die bere interpretazioei.

Gogoko du kalitatezko lanak egitea.

6. Modu kooperatiboan parte hartzea musika-jardueretan, eta egindako lana ebaluatzeko gai izatea.

Taldeko musika-lanen plangintza egiten laguntzen du.

Ardurak onartzen ditu eta taldearekin koordinatzen du bere lan-erritmoa.

Aldaketetara egokitzeko gaitasuna duela ageri du.

Jarduera artistikoko gainerako kideei laguntzen die, haiekin elkartasunez jokatzuz.

Talde-lanaren garrantzia balioesten du.

7. Musikaren funtzio eta erabileren eta testuinguru tenporal eta kulturalen artean zernolako loturak dauden modu intuitibo eta kritikoa azaltzeko gai izatea.

Musikaren funtzio sozialak ezagutzen ditu.

Soinu-kontaminazioa duten giroak hautematen ditu eta kontaminazio hori arintzeko ideiak proposatzen ditu.

Adi entzuten ditu musika askotarikoak.

8. Zenbait motatako musika-adierazpenen berri izatea, eta Euskal Herriko eta beste herri batzuetako ondarearen partetzat hartzea adierazpenok.

Euskal kultura-ondarea eta beste kultura batzuetakoa ezagutzeko interesa ageri du.

Adi entzuten ditu musika-adierazpenak, eta haien testuinguruan kokatzen ditu.

	<p>Euskal Herriko eta beste herri batzuetako musika-lanak interpretatzen ditu.</p> <p>Euskal Herriko eta beste herri batzuetako dantza- eta abesti-errepertorio oinarrizko bat ezagutzen du.</p> <p>Musikaren garrantzia balioesten du, herrien ondarea eratzten duen osagaia den aldetik.</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Ikasturteko hiru ebaluazioetan hurrengo edukien multzoak landuko dira:

1. **Eduki komunak** (Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak).
2. **Musika entzutea eta ulertzea** (Entzunaldiak lantzea, musikaren oinarrizko elementuak eta soinuaren ezaugarriak bereiztea, isiltasuna balioestea,...).
3. **Musika interpretatzea eta sortzea** (ahotsa, musika-tresnak eta gorputza erabili, abestu, interpretatu,.../ Musika-tresnak erabili: perkusiozko musika-tresnak eta txirula jo,...)
4. **Testuinguru eta Erreferente musikalak** (musika-obren testuingurua aztertzea, zentzu/begirada kritikoa zabaltzea ...)

Hauekin batera **Ikus-entzunezko teknologiak** erabiliko dira edukiak sakontzeko informazio iturri gisa, musika entzuteko, ikerketa lanak eta aurkezpen kanak adierazteko.

1. EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA	3. EBALUAZIOA
<p>1. Soinua, zarata eta Isilunea</p> <p>2. Erritmoa</p>	<p>3. Melodia eta Armonia</p> <p>4. Giza ahotsa</p> <p>5. Musika tresnak</p>	<p>6. Musika tresnak</p> <p>7. Euskal herriko musika</p> <p>8. Kontsumorako musika</p> <p style="text-align: center;">ARAZO EGOERA</p>
Orduak: 12 h	Orduak: 10 h	Orduak: 12 h

--	--	--

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Hurrengo printzipio metodologikoetan oinarrituko naiz: Konstruktibismoan, Irakaskuntza esanguratsua, Ikasteko autonomia eta ikasten ikasteko printzipioan, Aniztasun eta indibidualizazio printzipioetan eta Sozializazio printzipioan.

Horretarako estrategia ezberdinak erabiliko ditut: Erabiliko den metodología baterazlea,kooperatiboa eta aktiboa izango da; ikaslea partaide delarik horretarako lanetan ikertu, aztertu,erreflexionatu eta iritziak eman behar izango dituzte.

Ikasten denaren ulermena potentziatuko da, azpimarraketa eta eskemen, mapen elaborazioak barne,horrela gertatzen baita irakaskuntza esanguratsua.

Kontzeptu berriak azaltzen direnean aurre ebaluazio bat egingo zaie galderen bitartez, beraien partaidetza taldean inportantea delarik.

Landuko diren edukiak praktikan oinarrituko dira.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira autoikaskuntza, komunikazio, ezagutza, laguntza eta gehiago jakiteko bide moduan.

Ikaslegoaren aniztasuna kontuan hartuko da.

Musika gelan erabiliko diren estrategiak: Musika esperientziak bizi ahal izatea musika entzumen lantzen denean, musika interpretatzen denean, gorputz adierazmenaren inprobisazio eta sorkuntzaren bitartez.

Horretarako, pertzepzio gaitasunak ere entzumen aktiboaren eta ulermen memoriaren bitartez landuko dira .

Adierazmen gaitasunak berriz, ahotsa, dantza eta mugimendua, eta instrumentuen abileziaren bitartez landuko dira. Hau guztia interpretazioa eta sormenaren laguntzaz aurrera eramango delarik.

Arbela digitala, irakaslearen ordenagailua.

TALDEKATZEA: Ezberdinak izango dira lantzen diren edukien, ezaugarrien eta ikasleen ikasteko erritmoen arabera.

Talde handian: Gaien aurkezpenak egiteko, entzunaldiak eta bideoak lantzeko, azalpen orokorrak egiteko.

Lan talde txikietan: binaka edo banakako lanak egiteko. Lan konkretuak lantzeko, baita hausnarketa lanak egiteko ere.

BALIABIDEAK:

Baliabide analogikoak

Bibliografikoak: Testu liburua ez da erabiltzen. Irakasleak apunteak eta fotokopiak prestaTuko ditu. Horretarako argialetxe desberdinen liburuetan oinarrituko da, baita internetetik bilatutako informazioan ere.

Lan-koadernoan ikasle bakoitzeko lan pertsonala isladatuko da: Eskemak, Partiturak, artikuluak, ariketak,...

Baliabide digitalak

Institutuko ikt baliabideak: netbookak, arbela digitala, inpresorea, CDak. Baita Google Appsek eskeinitako tresnak: emaila, drive, calendar, presentazioak, musika sitea, classrooma, popplet, edugloster...

Instrumentazioa: Orff instrumentazioa, txirula, perkusiozko musika-tresnak...

HOBKUNTZA PLANA: Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3. ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da".

EUSKERAREN EGUNA: Euskal Herriko kultura eta musika ondarea zabaltzea. Euskal kantak abestu, dantza egin eta musika-tresna tradizionalak (txalaparta, trikitrixa, panderoa) ezagutu. Modu kooperatiboan parte hartzea eta taldean interpretatzea Euskal musika.

IRTEERA ABAO txikik proposatutako ekintza: "Bost axola bemola". Opera antzerki baten bitartez operaren historiaren aria, dueto, famatuenak eta beraien sekretuak ezagutzea

HARRERA EGUNA: Institutua eta inguruko eskola publikoetako ikasle, irakasle eta familiekiko harremanak sortzea non prozesu guztiaren protagonismoa eta ardura ikasleen inplikazioan egongo den.



<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Etengabeko prozesu bat da. Kontutan harturik gure ikaslea entzule eta ekoizle izango delarik: Ikaslearen koadernoak, ariketak eta lanak, zuzenketak, laburpenak, ahozko eta idatzizko adierazmena aurkezpenetan, interpretazioa (kantagintza, dantza eta instrumentuak) eta froga idatziak eta praktikoak izango dira kalifikatzeko erabiliko ditugun tresnak.</p> <p>Hau guztia aurrera eramateko saio bakoitzean behaketan oinarrituko gara.</p>	<p>Alde batetik, irizpide espezifikoak:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Musika hizkuntza2. Entzumena3. Ikerketa lanak4. Musika praktika. <p>Bestetik, irizpide orokorrak:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Jarrerak (gelan eta lanetan)2. Adierazmen idatzia eta ahozko adierazmena3. Parte hartzea. <p>Beraz, kontutan hartuko ditugun <u>kalifikazio irizpideak hauexek izango dira:</u></p> <p>Lanak eta praktika: (%30)</p> <p>Etixerako lanak, lanak, fitxak, mapak, eskemak egitea, praktika instrumentala, txirula, perkusiozko instrumentuak, gorputza eta mugimendua...</p> <p>Lanak esandakoa datetan aurkeztea eta praktikan partaidetza izatea kontuan hartuko da.</p> <p>Materiala eta jarrera: (%20)</p> <p>Materiala ekartzea: lan-koadernoak. Hemen emandako apunteak, agindako lanak eta</p>

	<p>fitxak ordenaturik agertu behar dira. Jarreraren notan kontuan hartuko da.</p> <p>Jarrera: arreta, interesa eta errespetua ikaskideekiko eta irakaslearekiko kontuan hartzen da.</p> <p>Azterketa (50%) Bai teoriko bai praktikoa izan daiteke.</p> <p>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran azterketa global bat egongo da non landutako ikasgai buruzko froga teoriko--praktikoa egingo da.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuerazio-sistema...].</p> <p><i>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</i></p>	
<p>Ebaluaketa bat gainditzeko 5 atara beharko da.</p> <p><u>Ikasgaien berreskurapena:</u> atalen bat ondo finkatu gabe gelditu bada, jarduera batzuen bidez sendotuko da.</p> <p><u>Ebaluazio berreskurapena:</u> Hurrengo ebaluazioa gainditzen badu gaindituko du, jarraia baita. Hala ere, 1. eta 2. ebaluaketak gainditu gabe badaude, derrigorrezkoa izango da 3. ebaluaketan, ikasturtean zehar egin ez diren ariketak aurkeztea.</p> <p><u>Ikasturte osoaren berreskurapena:</u> Ekainean ezohiko ebaluazioan azterketa baten bidez egingo da. Ikasleak ikasturtean zehar egindako lanak aurkeztu behar izango ditu bere lan koadernoan. Ez badu gainditzen , lan espezifiko bat egin beharko da epe baten barruan non ikasturtean landutako gaietan oinarrituta egon behar duen.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

--